

SEGMENTAZIOA

Gure enpresa batez ere 18 urtetik gorako emakume eta gizonei zuzenduta dago, talde honek lagunekin elkartzeko aisialdirako gune modernoak bilatzen baititu. Bergaran dagoen enpresa bat garenez, inguru horretako bezeroak edo Debagoienako pertsonak etortzea espero dugu baina mundu guztia etor ahal liteke.

Gure bezeroak pertsona lagunkideak izan ohi dira, cachimbak partekatzea, apustu egitea eta leku lasaieran denbora pasatzea gozatzen dutenak. Hitz egiteko, erretzeko, apustu egiteko eta edateko giro erosoak bilatzen dute. Gainera, esperientzia osoak baloratzen dituzte, hala nola ekitaldi bereziak edo promozioak, lokalera itzultzera bultzatzen dituztenak.

Laburbilduz, gure enpresak cachimbak eta hiriko gazteentzako joko-aretoa uztartzen ditu, sozializatzea, ondo pasatzea eta giro moderno eta atsegin batez gozatzea helburu dutenak.

